



**ARANTZAKO UDALA**

IFZ: P 3102200 G

Herriko Plaza, 7  
31790 ARANTZA (Nafarroa)  
© 948 634 005  
udala@arantza.eus  
www.arantza.eus

---

## OHIKO OSOKO BILKURAREN AKTA

---

**Organoa:** Udalbatza  
**Deialdia:** Lehenengoa  
**Bilera mota:** Ohikoa  
**Eguna:** 2021.03.09  
**Ordua:** 18:00tan  
**Tokia:** Herriko Etxeko areto nagusia.

**Bertaratuak:**

- Dabid Iturria Almandoz jn., EH Bildu.
- Leire Mitxelena Gamio and., EH Bildu.
- Eneko Sarrias Zoco jn., EH Bildu.
- Imanol Lukanbio Larretxea jn., EH Bildu.
- Beñat Mitxelena Danboriena jn., EH Bildu.
- Joseba Pikabea Iribarren jn., EH Bildu.
- Markel Jorajuria Elizondo jn., EH Bildu.

**Bertaratu ez direnak:**

**Idazkaria:** Nagore Madariaga Iriarte

**AZTERGAIK:**

**1. AURREKO AKTAREN ONESPENA**

2021/01/28ko akta aho batez onartzen da.

**2. BORTZIRIETAKO EUSKARA MANKOMUNITATEAKO ESTATUTU ALDAKETAREN ONESPENA.**

Idazkariak Arantzako Udalak jasotako Bortzirietako Euskara Mankomunitatearen Estatutuen 11.3 artikulua aldatzeari buruzko jakinarazpenaren azalpena egiten du. Jakinarazpenarekin batera, Lurralde Kohesio Sailak egindako txostena bidali zuten, egin nahi den aldaketaren aldeko txostena emanaz, hala nola:

*"Udal bakoitzak ordezeko ordezkaria izendatuko du titularrak laneko, osasuneko edo familiako arrazoiengatik Batzorde erabakitzailearen bileretara joatea ezinezkoa dela adierazten duen kasuetarako."*

Osoko Bilkurak gaiaz eztabaidatzen du. Eneko Sarrias zinegotziaren ikuspuntutik, titularraren ordezkariak titularraren botere eta eskubide berdinak izan ezkerre titularraren botoaren zentzua aldatzeko arriskua legoke.

Osoko Bilkurak, informazioa jaso ondoren, aho batez erabaki du:

1.- Bortzirietako Euskara Mankomunitateak proposatutako 11.3 artikulua aldaketa ez onartzea.

2.- Bortzirietako Euskara Mankomunitateari jakinaraztea, Osoko Bilkuraren iritziz, planteatutako 11.3 artikulua aldaketari honako hau gehitu beharko litzaiokela:

*"Ordezkoak titularraren eskubide eta botere berberekin jardun ahal izateko, aldeztuz Osoko Bilkurak horretarako ahalmena eman beharko dio."*

3.- Erabaki hau Bortzirietako Euskara Mankomunitateari jakinaraztea.

### **3. ARANTZAKO FRONTOIKO PROIEKTUAREN KUDEAKETA ONESPENA.**

Alkateak eta idazkariak Arantzako frontoiko teilatua berritzeko proiektuaren berri ematen dute. Zentzu honetan, idazkariak aipatzen du proiektuaren kostuaren finantzaketaren zati bat Nafarroako Gobernuak "Tokiko ekonomia bultzatzeko" jasotako diru-laguntzarekin lagunduko litzatekeela. Diru-laguntzari dagokionez, idazkariak adierazten du diru-laguntza horrekin finantzatu nahi diren proiektuak 2021eko irailaren 30a baino lehen amaituta eta justifikatuta egon beharko direla.

Ondorioz, alkateak eta idazkariak jakinarazten dute, Udalaren 2021eko aurrekontua onartzean diru-laguntza frontoia berritu eta egiteko erabiliko zela ikusirik, Arantzako Arkitektoak memoria baloratu bat egin duela. Hau dela eta, EGURLAN BORTZIRI, S.L. enpresarekin harremanetan jarri ziren eta honek dagoeneko aurkeztu du egin beharreko lanen proiektua eta aurrekontua.

Era berean, idazkariak azaltzen du, Kontratu Publikoari buruzko apirilaren 13ko 2/2018 Foru Legearen 81. artikulua zenbateko txikiko kontratuei buruz xedatutako ikusirik, obra-kontratuarentzako zuzeneko esleipen bat egin daitekeela, kontuan hartuta proiektuaren aurrekontua 14.875'50 eurokoa dela (B.E.Z.a kanpo).

Osoko Bilkurak, informazioa jaso ondoren, aho batez erabaki du:

1.- Arantzako frontoiko teilatua berritzeko memoria baloratuari onespena ematea.

2.- Arantzako frontoiko teilatua berritzeko obra-kontratu zuzenean EGURLAN BORTZIRI, S.L. enpresari esleitzea 14.875'50 euroko kopuruan (B.E.Z.a kanpo).

3.- Erabaki hau, EGURLAN BORTZIRI, S.L. enpresari jakinaraztea, jakinaren gainean egon dadin eta dagozkion ondorioak izan ditzan.

#### **4. MARTXOAK 8KO MOZIO ONESPENA.**

Alkateak eta idazkariak EH Bildutik bidalitako martxoak 8ko mozioaren berri ematen dute, egun berezi horretan instituzioek beraien aldarrikapena egitea beharrezkoa ikusten dute eta. Zentzu honetan, Udalkideak jakitun dira oraindik berdintasun erreal bat lortzeko egin beharreko lanak aunitz direla.

Osoko Bilkurak, informazioa jaso ondoren, aho batez erabaki du:

- 1.- Martxoak 8ko moziora atxikitzeko onespena ematea.
- 2.- Mozioa EH Bilduri bidaltzea.

#### **5. ARANTZAKO LUR URBANIZAGARRI SEKTORIZATUAREN ARAUDI PARTIKULARREN ALDAKETA - S1 ETA S2.**

Eneko Sarrias jaunak eta idazkariak azaltzen dute berriki Nafarroako Gobernuko Etxebizitza Zerbitzutik bidali zutela Arantzako S1ean Etxebizitza Babestuak kentzeko aldeko txostena. Hau dela eta, Eneko Sarrias jaunak azaltzen du lur-eremu horietako jabeekin egindako bileran adostu zela S1eko Etxebizitza Babestuak kentzeko Arantzako Lur Urbanizagarriko S1 eta S2ko arau aldaketari hasiera ematea.

Zentzu honetan, idazkariak azaltzen du Lurraldearen Antolamenduari eta Hirigintzari buruzko Foru Legearen testu bategina onesten duen uztailaren 26ko 1/2017 Legegintzako Foru Dekretuaren 77.2. artikuluan xedatutako prozedura jarraitu beharko dela aurrean aipaturiko araua aldatu ahal izateko. Era berean, ikusirik 2019ko apirilaren 24an egindako Osoko Bilkuran jada hasierako onespena eman zitzaiola aipaturiko arauan hainbat aldaketa egiteko eta oraindik zenbait puntu egokitzea falta direla, prozedurarekin jarraitu ahal izateko partikularrak aurretik falta diren alderdiak zuzendu beharko dituzte.

Osoko Bilkurak, informazioa jaso ondoren, aho batez erabaki du:

- 1.- Arantzako Lur Urbanizagarriko S1 eta S2ko arau aldaketa gauzatu ahal izateko kudeaketei onespena ematea.
- 2.- S1eko partikularrei erabaki hau jakinaraztea dagokion ondorioak izan ditzan.

#### **6. ARANTZAKO ERAIKUNTZA ETA ERAISPEN HONDAKINEN GAINEKO FIDANTZAK ARAUTZEN DITUEN ORDENANTZAREN ONESPENA.**

Idazkariak eta Eneko Sarrias zinegotziak Arantzako eraikuntza eta eraispén hondakinen gaineko fidantzak arautzen dituen Ordenantzaren berri ematen dute. Idazkariak azaltzen du Ordenantza hau gauzatu ahal izateko Nafarroako Toki Administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legearen IX. Tituluko, I. Kapituluko 3. Sekzioan eta martxoaren 28ko 23/2011 Foru Dekretua, Nafarroako Foru Komunitatearen lurralde-eremuan eraikuntza eta eraispén hondakinen ekoizpena eta kudeaketa arautzen duenean ezarritakoa kontutan hartu direla.

Halaber, udalkideak gaiaz eztabaidatzen dute, bereziki Ordenantza hau aplikatzeko salbuetsitako hondakin minimo kopurua zein den azaltzea beharrezkoa ikusten dute. Hau horrela izanik, puntu hori Ordenantzari gehitzen zaio, modu honetara Ordenantza osaturik utzita.

Osoko Bilkurak, informazioa jaso ondoren, aho batez erabaki du:

- 1.- Arantzako eraikuntza eta eraipen hondakinen gaineko fidantzak arautzen dituen Ordenantzari hasierako onespina ematea.
- 2.- Nafarroako Toki Administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legearen 325. artikuluan xedatutakoari jarraituz, akordioa "Nafarroako Aldizkari Ofizialean" argitaratzea.

## **7. ARANTZAKO HIRIGINTZA ZERBITZUEN TASAK ARAUTZEN DITUEN ORDENANTZA FISKALAREN ONESPENA.**

Idazkariak eta Eneko Sarrias zinegotziak Arantzako hirigintza zerbitzuen tasak arautzen dituen Ordenantza fiskalaren berri ematen dute. Honi dagokionez, Eneko Sarrias jaunak azaltzen du, hirigintzako kontsulta kopuruak ikusirik eta Arantzako Udalak Arkitektoaren zerbitzuengatik ordaindu beharreko kopurua kontutan izanda, gaia kudeatzen duen Ordenantza bat izatea beharrezkoa ikusten duela, modu honetara aholkularitza-zerbitzuengatik Udalarari gasturik edo diru-sarrerarik sor ez datzaion.

Era berean idazkariak azaltzen du Ordenantza hau gauzatu ahal izateko Nafarroako Toki Administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legearen IX. Tituluko, I. Kapituluko 3. Sekzioan eta Nafarroako Toki Ogasunei buruzko martxoaren 10eko 2/1995 Foru Legearen Lehen Tituluko, IV. Kapituluko, 7. Sekzioan ezarritakoa kontutan izan dela.

Osoko Bilkurak, informazioa jaso ondoren, aho batez erabaki du:

- 1.- Arantzako hirigintza zerbitzuen tasak arautzen dituen ordenantza fiskalari hasierako onespina ematea.
- 2.- Nafarroako Toki Administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legearen 325. artikuluan xedatutakoari jarraituz, akordioa "Nafarroako Aldizkari Ofizialean" argitaratzea.

## **8. 2019KO KONTUEN ITXIERA.**

Idazkariak azaltzen du Nafarroako Toki Administrazioako Departamentukoekin izandako hainbat bilera eta gero, Arantzako Udalaren 2019ko kontuei itxiera ematea adostu dela. Era berean aipatzen du, Nafarroako Toki Ogasunei buruzko martxoaren 10eko 2/1995 Foru Legearen 227. artikuluan eta gainerako araudi erregulatzailan xedatutakoaren arabera, Toki-erakundeek behar

onartutako likidazio hori Foru Komunitateko Administrazioari igorri beharko diotela, onartu eta hamabortz egun baliouduneko epean.

Hau horrela izanik, idazkariak kontuen dokumentuak erakutsi eta zaltzen ditu Osoko Bilkurari.

Osoko Bilkurak, informazioa jaso ondoren, aho batez erabaki du:

1.- 2019ko kontuen itxierari onespena ematea.

2.- Kontuen itxierako dokumentuak IDECAL plataforma bidez Nafarroako Toki Administrazio Departamentuari bidaltzea.

## **9. 2020KO KONTUEN ITXIERA ONESPENA.**

Idazkariak azaltzen du, kudeaketa arazoak direla eta, ez duela denborarik eman 2021eko martxoaren 9ko Osoko Bilkuran 2020ko kontuen itxierarako dokumentuak prestatzeko.

Osoko Bilkurak, informazioa jaso ondoren, aho batez erabaki du:

1.- Hurrengo Osoko Bilkurarako atzeratzea 2020ko kontuen itxierako akordioa.

## **10. ARTXIBO DIRULAGUNTZA KUDEAKETEN ONESPENA.**

Idazkariak azaltzen du 2021eko otsailaren 23an argitaratu zela "Nafarroako toki entitateei dirulaguntzak emateko deialdia, 2021ean artxibatze sistema propioa abiarazteko eta/edo finkatzeko". Gauzak horrela, 2021ean Arantzako Artxiboan egin beharreko lanen artean, bertzeak bertze, aginduen serieen xahuketa eta eduki historikoa sistema berrian sartzeari daudela azaltzen du. Era berean azaltzen du dirulaguntzak emateko momentuan puntu gehiago lortzeko lgantzi eta Lesakako Udalekin eskaera lankidetzara moduan aurkeztea egokiena izanzen zela.

Gauzak honela, Kontratu Publikoari buruzko apirilaren 13ko 2/2018 Foru Legearen 81. artikulua zenbaterako txikiko kontratuei buruz xedatutako ikusirik, zerbitzu-kontratuarako zuzeneko esleipen bat egin daitekeela azaltzen du idazkariak. Modu honetara, aurreko urtean bezala, EREITEN KULTUR ZERBITZUAK enpresari esleitu ahal izanzen zen, kontuan izanda aurkezturiko aurrekontua 9.256'50€koa dela (B.E.Z.a barne).

Osoko Bilkurak, informazioa jaso ondoren, aho batez erabaki du:

1.- Lesaka eta lgantziko Udalekin dirulaguntza eskaera lankidetzara moduan aurkeztea.

2.- Artxiboa berritzeko zerbitzu kontratua EREITEN KULTUR ZERBITZUAK enpresari esleitzea aipaturiko kopuruan.

3.- Erabaki hau EREITEN KULTUR ZERBITZUAK enpresari jakinaraztea.

## 11. ALKATEAREN EBAZPENAK

11/2021-35/2021 arteko Ebazpenak berretsi egiten dira.

## 12. ESKAERAK ETA GALDERAK

Ez dira egiten.

Beste aztergairik izan gabe, 21:00ak direnean, alkateak bilera bukatutzat eman du, eta nik, idazkaria naizenez, ziurtatzen dut.

ALKATEA,  IDAZKARIA, 

Dabid Iturria Almandoz  Nagore Madariaga Iriarte